

KAROBI ELKARTEA

“Familia gazteak bildu eta egoteko lekua nahi genuen”

■ Juntakoak gustora daude aurreko asteburuan elkartearen bete eta jendea ondo molatu zelako ■ Orain, beren burua antolatzea dute lehenbiziko lana.



Umeak eta gurasoak arratsalde pasa Karobi elkartearen.

■ KRONIKA: Nola sortu zitzaizuen elkartearen ideia?

DIREKTIBA: Koadrila baten ideia izan zen. Hasieran, elkarrekin biltzeko lokala nahi genuen. Baina, prezioak-eta ikusita, ideia zabaldu eta soziedade egitea pentsatu genuen.

■ Soziedade familiarra...

Bai, garbi geneukan hala behar zuela. Ideia auzoan zabaldu genuenean ere -auzo elkartearen barrena- soziedade familiarra izango zela planteatu genuen: familia gazteak bildu eta lasai elkartzeko tokia. Eta uste dugu, gainera, planteamendu horregatik izan duela izan duen arrakasta. Ideia landuta eraman eta aurkeztu genuen aurreko bileran 80 lagun etorri ziren.

■ 50 ‘kilo’ kosta zaizue. Horri buelta emateko?

Ez daukagu presarik. 16 milioi bazkideek jarri dute eta gainerakoa bankuak.

■ Zer jende bildu zarete?

Gehienak Latxunbeberri bertako bikote gazteak dira. Hernaniko beste auzoetako batzuk ere badira eta Hernanitik kanpoko beste gutxi batzuk ere bai.

■ Zer emango dio Karobik Latxunbeberri?

Beno, oraintxe sortu gara eta ez dugu oraindik horretan pentsatzeko denborarik izan. Momentuz, elkar agurtu baino zerbait gehiago egiten dugun 80 familia gaude eta hori bera bada zerbait.

■ Juntak-eta nola nola antolatu dituzue?

Bederatzi laguneko zuzendaritza osatu dugu eta beste hiruko taldea ari zaigu laguntzen. Karguak izendatuak daude aspalditik, baina, orain martxa hartzea falta zaigu: bodega kontua, kontabilitatea... Ondo antolatu eta ondo funtzionatzea da gure oraingo erronka.

■ Hernaniko soziedadeetan gauzak antolatzen dira. Zer asmo duzue aurrerako?

Gu ere besteen martxan sartuko gara. Lehengoan batek bota zuen soziedadeko txaranga sortzeko ideia. Gero, hor daude mus txapelketak, festetan elkarrekin antolatzen dituzten ekin-tzak... Pixkanaka sartuko gara, bai, dinamika horretan. □

■ BOLA JOKOA

Hernani gaur Gipuzkoako taldekako txapel bila

■ Klub Deportiboko taldea bigarren gelditu zen aurreko igandeko tiraldian ■ Legazpin da txapelketa.

UR-MIA, Elur-Txori eta Klub Deportibo, herriko hiru taldeak atera dira Gipuzkoako taldekako Bola Txapelketan. Ereñotzuarrak eta Elur-Txorikoak, ordea, atzera gelditu dira. Klub Deportibotik hauek tirako dute gaur: Jose Mari Usabiaga, Ale-

jandro Usabiaga, Juan Goenaga, Nikolas Osaba, Migel Arrozpide eta Inaxio Ugarteburuk. 9 brilatako aldea bakarrik dute kontra.

Txapelketa goizeko 09:30etan hasiko da Legazpiko *De-nontzako* bolatokian. □

■ 3. MAILAKO FUTBOL LIGA

Reala-Hernani, Zubietan

■ Goizeko 11:30etan jokatu dute bigarren bueltako bigarren partidua ■ Zubipen jokatu dute partidua 0-2 irabazi zuten donostiarrek.

Kalea itxi egin zuten atzo etxea botatzeko

■ Etxe berriak egiten ari dira Karmelo Labakako (Antziolako rekta) bi aldeetan ■ Gaur zabalik dago.



Eskabadora etxea botatzen, atzo Karmelo Labakan.

GOIKO LASTOLA

Urtarrilaren 19tik zabalik
SAGARDOTEGIA

GOIKO LASTOLA BASERRIA
Ereñotzu 89-Tel. 943 553 272 - HERNANI

serigrafia diseinu grafikoa

etxea apaintzeko gauzen eta oparien denda

andrekale35
kardaberaz, 35. Tel.: 943 33 60 05

DORRONSORO

OKINDEGIA

Bertan egindako kalitatezko ogia

J.DORRONSORO OKINDEGIA, S.L
Lizeaga, 7 ☎ 943 33 36 18
20120 HERNANI

MARTINDEGI - EREÑOTZU DESAFIOA HERRI KIROLETAN

'Iñatzu' nagusi, berriz ere

■ Aizkoran kendu zion aldea Martindegiri ■ Jende asko ikusten eta giro ederra.



Aitor Barrenetxea azken tronkoa mozten. Kosta zitzaion ederki!

FESTA polita jarri zuten Martindegi eta *Iñatzuko* bi koadri-lek. Aizkoran hasi zen proba eta, momentu batean etxeko-ak aurretik joan baziren ere, Roxariok eta Mañuk bota zituzten aurrena egurrak.

GAUZAK ESTU

Geroko probetan alde gutxi egon zen: lokotx biltzen, txingetan eta kontrabandoan ziztu bizian bete zituzten lanak bi taldeek. Azkenengo proba aizkora, berriz ere. Aitor Barrenetxeari adarbegia egokitu zitzaion eta hortxe galdu zuten denbora. Denera, 2 minutuko aldea kendu zion *Iñatzuk* Martindegiri. □

■ WATERPOLOA

Emakumezkoen Euskal liga gaur hasiko da

■ Riopicoren kontra jokatuko dute kiroldegian, 12:00etan ■ Mutiletan: Hernani-Castellae, 13:00etan.

■ PELOTA

Oiaga-Oregik 22-12, galdu

■ Txapelketatik kanpo gelditu dira ■ Paletan Las-Martinezek 30-20 galdu zuten Muneta-Ruizen kontra.

BIGARREN mailako eskuz binakako txapelketan, bi bikoteek partidu hila jokatu zuten larubatean, jokorik gabea. Oiaga ez zen ia partiduan sartu ere egin. Esnal-Fuertek 22-20 irabazi zuten txapelketaz kanpoko partidua.

NAPARRAK NAGUSI Paleta gomako Euskadiko txapelketan Hernaniko taldeko bikoteak ezin izan zuten Lizarrakoarekin. Partidua oso gogorra izan zen; joaren poderioz hautsi zuten irabazleek. Datorren astean Iekoraren kontra. □

■ ERRUGBIA

Durango-Hernani

■ 12:00etan jokatuko dute ■ Aurretik, jubenilek jokatu dute: hauek ere durangarren kontra

EHIZA TXAPELKETAKO SARI BANAKETA

Otaegik txapela eta Vacasek kotoa

■ Txantxangorri elkartearen izan zen afaria.



Ehiztariak sariak hartuta, Txantxangorriko lehendakariarekin.

■ ESKUBALOIA

Hernani 30 Elorrio 8

ETXEKOAK aisa nagusitu zitzaizkion sailkapeneko azkenari, atzo, Kiroldegian. Golak: Oianek 8; Monikak 7; Ruthek 5; Begoñak 3; Lorena, Belen eta Nereak 2; eta Eluskak 1. Datorren astean Urdaibairen kontra jokatu dute, Bizkaian. □

ROKODROMOA

Tilosetan bilera Astelehenean

ROKODROMOKO taldeak bilera konbokatuko du asteleheneko. Dagoeneko lokala badute; orain, hura nola txukundu, nola antolatu eta nola martxan jarri erabaki behar dute. Bilera: arratsaldeko zorritetan da. □

■ HITZ BITAN



Hernaniko eskolarteko atleta gazteak, atzo Antziolako pistan.

✓ ATLETISMOA

Zortzi hernaniar Donostialdeko atletismo probetan. Antziolako pista eskolarteko atleta gazteak bete zen atzo. Hernaniarrak 4 probetan atera ziren eta batzuk beren serietan ondo ibili ziren: Laura Madinak, bere taldean, 2garren egin zuen 150 metroetan; Patrizia Fernandez eta Eva Barrosak, berriz, hirugarren, beste serietan.

✓ SANTA BARBARA

Elkarteko loteria jasotzeko egunak. Santa Barbaran Eguberritako loteria *puntta bat* tokatu da. Zerbaki saritua duena jasotzera etorri dedila astelehenetik ostiralera 11:30-13:30 edo 18:30-20:00.

✓ POLITIKA

Manifestazioa egin zen ostiralean Hernaniko EH-k deituta. *Burujabetza da bakea* zuen lema manifestazioak 150 lagun inguru bildu zituen.

✓ MUSIKA

Laiotz, gaur, Oilamumen. Arratsaldeko zortzietan hasita, Laiotz taldeak joko du Oialume dantzalekuan.

✓ ZINEA

'Karramarro uhartea' eta 'Bailame el agua'. Umeentzakoak 17:00etan. Bestea 19:30etan. Biterin biak.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943 553582
▶ Gaez: Tanco
Urnieta, San Juan 36
☎ 943 550942

IRAGARKI MERKEAK

■ Neska euskaldun bat pisu konpartitu baten bila dabil.
☎ 943-33 29 62



Hernani Institutua
A. Iturriaga - K. Labaka

LANGILEEN FORMAKUNTZARAKO IKASTAROAK
%100 ean HOBEZUZek SUBENTZIONATUAK
Gaitasun profesionalen sistema
2001 Urtea

Ikastaroak	Orduak	Hasera - Amaiera	Ordutegia
MEKANIKA ALORRA			
CNC fresadoran programaketa	50	01/02/12 - 01/03/14	6etatik 9etara
Cad-Autocad	45	01/03/05 - 01/03/28	5etatik 8etara
Cad-Autocad	45	01/04/23 - 01/05/21	5etatik 8etara
Kalitate Kontrola	40	01/02/01 - 01/02/22	6etatik 9etara
Kalitate Kontrola	40	01/04/23 - 01/05/17	6etatik 9etara
Makina osagarriak	60	01/02/01 - 01/03/26	6etatik 9etara
Hidraulika	40	01/03/05 - 01/03/26	6etatik 9etara
Elektroidraulika	30	01/05/21 - 01/06/05	6etatik 9etara
ELEKTRIZITATE-ELEKTRONIKA ALORRA			
Automatismo programagarriak	60	01/01/22 - 01/02/22	5etatik 8etara
Antenen instalaz. montaiak eta mantenim	30	01/03/06 - 01/03/20	5etatik 8etara
CAD- Elektrikoa	30	01/03/12 - 01/03/27	5etatik 8etara
Instalazio Domotikoen Diseinu eta konfiguraz.	65	01/05/16 - 01/06/21	5etatik 8etara

* Ikastaro guztiak Astelehenetik Ostegunera izango dira
* Interesatuak eskaera inpresioak aurkeztu beharko dituzte. Zentruan jasotzeko
* Informazioa Karmelo Labaka 7 zentruan Tel. 943-55 999-538 .05.50

